

IRAKASLEAK

• LEKUALDATZE LEHIAKETA.

Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak, Hizkuntza Eskolak, Musika eta Arte Eszenikokoak, Arte Plastikoko eta Diseinuko Irakasleak eta Ikuskariak: **maiatzaren 13an** emango da argitara lekualdatze-lehiaketaren **destinoen behin betiko esleipenak**.

Maisu-maistrak: Hezkuntza Sailak ahoz adierazitako data, **maiatzak 24a**.

• EGONKORTASUNA ETA UDAKO ESLEIPENAK.

Administrazioak maisu-maistra kidegoan indarrean jarritako egonkortasun agindua, ([2020ko ekainaren 1ean](#)), **nola gauzatuko duen zehaztu gabe jarraitzen du**. Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta gainerako kidegoetan egonkortasuna indarrean noiz sartuko duen ere ez du jakinarazi.

Urtero bezala **STEILAS**ek prozesu horien inguruan behin betiko jarraibideak izan bezain laster, hitzaldiak antolatuko ditu.

HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK

• ORDEZKOEN IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPEN PROZESUA.

Parte-hartzaileen behin betiko zerrenda **maiatzaren 14an** argitaratuko da Hezkuntzako web orrian.

• LIZENTZIAK, BAIMENAK, ESZEDENTZIAK ETA LANALDI MURRIZKETAK.

Hezkuntza Sailak hainbat eskaera egiteko gutxieneko epea zehaztu du, hots, **7 egun natural lehenago** egin beharko dira. [Jarraibideak](#).

**Ikasturtea amaitzear eta Administrazioak
EGONKORTASUNAREN inguruko argibideak zehaztu gabe
jarraitzen du. ERANTZUNAK BEHAR DITUGU ORAIN!!!**